Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

# Orain Internet bidez eman dezakezu Izena Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

13

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

## Kontratisten Erregistro Ofizialaren eta Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman izena ematearen ateko erlazioa

Orain arteko ibilbide luzean betetako ohiko funtzioez gain, gaur egun, Kontratisten Erregistro Ofizialak ezinbesteko zeregina betetzen du kontratazio elektronikoa abian jartzean.

Hain zuzen ere, elektronikoki lizitatu ahal izateko, besteak beste, Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda egon behar da eta, hori egiaztatzeko, indarrean dagoen ziurtagiri bat eduki behar da.

Hala, erabiltzaile bat lizitazio elektronikoko aplikazio batera sartzen den bakoitzean, Erregistroa kontsultatzen da honako hauek egiaztatzeko:

- Enpresa Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoela eta, hori egiaztatzeko, indarrean dagoen ziurtagiri duela.
- Enpresako ordezkarien lege-ahalordetzak indarrean daudela.
- Erabiltzailea kontratazio elektronikoko prozesuan parte hartu nahi duen enpresako kidea dela.




## Kontratisten Erregistro Ofizialean burutu beharreko administrazio-lanak

Kontratisten Erregistro Ofiziala Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren oinarrizko elementuetako bat da. Esparru horretan burutu behar dituen lanak honako hauek dira:

- **Egiaztatu zure enpresa Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoela eta, hori egiaztatzeko, indarrean dagoen ziurtagiri duela.**
- **Lortu zure enpresak Kontratisten Erregistro Ofizialean duen inskripzio-zenbakia.**
- **Egiaztatu zure enpresako ordezkarien lege-ahalordetzak indarrean daudela.**
- **Identifikatu zure enpresatik kontratazio elektronikoaren prozesuan parte hartzea nahi dituzun pertsonak.**
- **Zure enpresaren izena eman Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman.**

**Kontratazio publiko elektronikoa**
**Contratación pública electrónica**







## Zure enpresak Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman izena emateko arrazoiak

Honako pertsona hauek esku har dezakete Kontratazio Publiko Elektronikoan:

- **Lizitazio Elektronikoaren aplikazioa kontsultatzeko ahaldun diren eta baimena duten pertsonak**; bi gaitasun mota hauek aurreikusten dira:
    - **Eskaintzak kargatzeko (prestatzeko) gaitasuna**
    - **Eskaintzak sinatzeko gaitasuna**

- **Informazioa eta jakinarazpen elektronikoak jasotzeko pertsona baimenduak.**

- **Marketinari eta hedapenari begirako harremanetarako pertsonak.**

Kontratazio Elektronikoaren Sisteman izena emateak enpresako kideei aukera ematen die Lizitazio Elektronikoaren eta Jakinarazpen Elektronikoaren aplikazioak erabiltzeko.

Orain artean, paperean besterik ezin ziren gauzatu prozedura horiek. **Orain, berriz, Internet bidez ere badago aukera.**




# Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman izena emateko inprimakiak telematikoki tratatzea

Kontratisten Erregistro Telematiko Ofiziala sortzeko lehen urrats gisa, "**Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman Izena Ematea" funtzionaltasun telematikoak jarri dira abian.**

Izena emateko modu telematikora honako bide hauen bidez sar daiteke:

- **Kontratazio Publiko Elektronikoaren web orrian sartuta.**
- **Kontratisten Erregistro Ofizialaren orrietatik sartuta.**
- **www.euskadi.net web orrian sartuta.**




## Kontratazio Publiko Elektronikoaren web orrian sartuta

Sarbidea "**Elektronikoki lizitatzeko baldintzak**" atalean dago, honako helbide hauen hasierako orrietan:

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

Orri horietan honako atal hau aurki daiteke "**Kontratazio Publiko Elektronikoan izena emateko inprimakiak TELEMATIKOKI izapidetzea (gomendatutako metodoa, prozedura arinagoa)".**

**Prozedura erabiltzeko, IZENPEren ziurtagiri digitala duen txartela irakurgailuan sartu behar duzu, hurrengo esteka sakatu aurretik.**




## Kontratisten Erregistro Ofizialaren orrietatik sartuta

Sarbidea "**Elektronikoki lizitatzeko baldintzak**" atalean dago, honako helbide hauen hasierako orrietan:

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

Orri horietan "Kontratisten Erregistro Ofiziala" atala aurki daiteke. Esteka horretan sartuta, orri batera sartuko zara eta bertan, besteak beste, atal hau aurki daiteke **"Izena ematea Kontratazio Elektronikoko Sisteman".**

**Prozedura erabiltzeko, IZENPEren ziurtagiri digitala duen txartela irakurgailuan sartu behar duzu, hurrengo esteka sakatu aurretik.**




## www.euskadi.net web orrian sartuta

Euskadi.net ataria pertsona, enpresa eta erakundeen zerbitzura dagoen tresna da. Euskadi.net web orrian Euskal Herriko alderdi guztiak ezagutu ditzakezu, hala nola, gizartea, kultura, ekonomia edota politika baina, batez ere, alderdi administratiboa, modu eroso eta errazean.

Honela sartzen da, Euskadi.net web orrian, Kontratazio Elektronikoaren Sisteman izena emateko prozedura telematikora:

- **"Izapideak online"** menuan honako hau hautatu:
  - "**Eginzu online**", bertan, honako hau hautatu:
    - "**Kontratazio administratiboa**", bertan, honako hau hautatu:
      - **"Izena eman Kontratazio Publiko Elektronikoaren Sisteman".**

**Prozedura erabiltzeko, IZENPEren ziurtagiri digitala duen txartela irakurgailuan sartu behar duzu, hurrengo esteka sakatu aurretik.**



## Izena emateko prozeduraren erabilerarako gida

Informazio gehiago nahi izanez gero, Kontratazio Publiko Elektronikoaren webguneko **"Dokumentazioa deskargatzea"** atalean aurkituko duzu.

Honako helbide hauetan duzu sarbidea:

- www.contratacion.info
- www.euskadi.net/kontratazioa

## Kontratazio Elektronikoaren Sisteman izena emateko prozedura telematikoen erabilerari buruzko ohar batzuk

Izen-emate telematikoaren prozedura erabiltzean kontuan hartu beharreko zenbait ohar:

- Enpresak indarrean eduki behar du Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko izen-ematea.
- Ahaldun solidarioek beste inork ezin dute erabili aplikazioa.
- Ezinbestekoa da IZENPEren ziurtagiri digitala edukitzea. Herritarraren nahiz erakundearen ziurtagiria erabil daitezke. Prozedura erabiltzeko, IZENPEren ziurtagiri digitala duen txartela irakurgailuan sartu behar duzu, hurrengo esteka sakatu aurretik.



## Zalantzarik bazenu, deitu Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentrora

Eusko Jaurlaritzak Arreta Zentro bat sortu du, euskal administrazioarekin elektronikoki lizitatu behar duen orori babesa eta arreta eskaintzeko.

“Zuzenean” izena du Eusko Jaurlaritzak daukan Herritarrarentzako Arreta Zerbitzuak; kontsultak egiteko sarbidea da, eta bide hauek erabilita jo daiteke bertara:

- **012** telefono-zenbakia, Euskal Autonomia Erkidegotik egiten diren deietarako.
- **945 01 80 00** telefono-zenbakia, Estatuko gainerako tokietatik egiten diren deietarako.
- Honako Internet helbidea: **www.euskadi.net**
- Posta elektroniko helbidea: **laguntzakpe@ej-gv.es**

Horretaz gain, Erabiltzailearentzako Arreta Zentroak zuzeneko laguntza emango dizu Internet bidez, eta urruneko konexio bidez sartu ahal izango da zure ordenagailura, informatika-aplikazioak erabiltzen laguntzeko.